

Oi gu hemen, eten puntutan...

Etxe honetarako itzuleran, urratsa neurtu artean, dorpea zait lehe-
na, gehiago baizik ez azken asteak
alferki emanik gogoetarik idatzi gabe.
Gaitegia libre eta zabala izateko, bitxiki
zait neketsu. Horra gogotsu diodala,
erranaldiak hasi arau eten puntuz bu-
katu gabe lerrokatzen doazkit. Banen-
goen bazetorkidala heziketa katolikotik,
ez hastapenetik hasteko gaiztakeriatan.
Banengoen agian gai gehiegi banukeela
jorratzeko, ezin jakin nondik has. Ze-
ren, zer debru, baita zer lerroka: gerla
egoera, kultur emanaldiak trumilka,
Maiatz aldizkarian Lekore taldean
bezalatsu gazte andana poesiari lotua,
AHTak atzera, Herrikoa-ren kanpaina,
FN haizatua baina ezkerrera egiteko
bezperan, HELEP...

Suspensiboak bezain deseroso-
rik ez da. Gaztetan irakasle batek
debekatu zidan hauen erabiltzea.
Zioenez ez zioten batere grazia-
rik, jakin minik eragiten, frustra-
zioa baizik: "Hiru puntu eta ez
dakigu! Hiru puntu: asma ezazu
segida? Hiru puntu: ez dakit eta
jarri nahi duzuna? Hiru puntu eta
zer? Ez naiz ausartzen? Ez dakit
zer pentsa? *A suivre?* Ideia argi ez
duenak jartzen ditu horiek: garbi
daukanarena berez etzatera dator
paperera".

Baiki. Baina horra. Iparraldeta-
rrok ba al dakigu xuxen zertan ga-
ren? Ondoko asteetan hasiko dira
Herri Elkargoaren aldeko bozak,
herriz herri, martxo bitartean eta
honen haritik gure errealitatea-
ren egokitzea. Gaurkoz iritziak eta
sustut kafetegietako mahai izkine-
tan paper puska purtzupilkatutan
egin kalkulu pragmatikoei alde-
koa ematen badute, suspenseak
hor dirau eta gu zintzilik, gure
jardunean, solasetan, gogoetetan.
Orain arte mintzatuak dira aldekoak




Bea Salaberri

EUSKARA IRAKASLEA

@beatxo

eta itxaropentsuak; kontrakoen uhol-
dea noiz altxatuko zain. Berriki arte
burutu dira gogoetak, trantsizioa nola
egin, epeak, konpetentziak, zerbitzu eta
langile. Gauzapen eta antolaketa fase



Antton Olariaga

horretatik hara badira kezka potoloak,
politikoak hots, ekonomia, arlo so-
ziala, fiskalitatea noski, lehentasunez
tratatu dituzketenak hots. Eta horien
aldean, euskaldunoi berezkoak zaiz-
kigun gai kuttunak, hala nola mugaz
gaindiko harremanak, euskararena eta
kulturarena, zein, merezi izan badituzte
lan talde bereziak eta gogoetaldi gauak,
segur aski kronologikoki beste guzien
ondotik tratatu baitira. Denbora
gehiago geroaren bideratzeko erranen
didazue? Baliteke. Eta badira argi ez
direnak: noraino egonen gara aitzina-
tuagoak?

Bizkitartean, bozen emaitza defi-
nitiboa ikusi artean, epilogo puntu
suspentsiboz idazten da. Hiru puntu.

Nehork ez baitaki zer gertatuko
den ez eta zer jar daitekeen ka-
pitulu horretan. Ezin baita jakin
kargudunek nolako iparra ema-
nen lioketen. Nehork ez baitaki
epilogorik zinez, azken finean, bi
menderen buruan, zinez egonen
denez bat. Hiru puntu nehorik
ez baitu imajinatu nahi segida
dramatikorik. Erreserba egokia
baitaiteke, dudak plazaratzeko
goizegi.

Iparraldea horrela baita nik
uste momentu honetan, hutsa bahi-
turik bezala, baldintza hipotetiko-
z blai, perpaus kontzesiboz betea.
Horrela ikusten dut behintzat nire
burua, laino artean baino, goaitan.
Eta berdintsu ingurukoak, ondoko
aulkian jarria denari oldartu gabe,
ukendurik pasa gabe, galdera fran-
korekin baina kontsentsuan. Bon,
badaitezke ere zenbait, andana,
futitzen direnak edo galduak, noski.

Dezepzioak ohiturak aitzine-
tik mentalizatzen irakasten du eta
zuhur jokatzeko gogotez eta xuhur
hitzez...

Jarraituko du... ■